



Otsaitaldekoa etxebizitza

Aldacrak: Otsaitakzesoria
Ahozkoa: Otsáitte / Otséitte



43° 10' 31"

2° 35' 24"

Berriz Iruditan / T. Angoitia

Otsaita (**Ikus Otsaita**) dugu jatorrizko etxea, eta honako hau, berriz, nahiz eta egun erre-pidearen beste aldean gelditu, jatorrizkoaren arnaga edo eranskina baino ez zen, gerora etxebizitza bihurtu zena. Arestian aipatu dugun etxearekin lotuta egon da eraikin hau dokumentazioan, eta, horrenbestez, etxe honen gaineko aipuak eskasak dira. Horrela, 1825ean egindako polizia-errolan aurkitzen da lehen-dabiziko aipamena, *Ochaita en su Arnaga*, alegia. XX. mendean aurkitzen ditugu erreferentziarik gehienak: *Oxeita Arnaga* (1905, BUA, 40) eta *Otzeita accesoria* (1967, BUA, CE). Dena den, *Otsaita* sarreran aipatutakoarekin jarraituz, aho-

zko erabilpenean *Otsáitte* eta *Otséitte* formak erabiltzen dira beste inolako bereizketarik egin barik bi etxeen artean.

Baserri-etxe apal samarra da, dotorezia iriz-pidetzat hartzen badugu. Sarri errepikatzen diren bi solairuak eta ganbara ditu. Bao gutxi eta txikiak ditu, ganbarako bi hutsak ezik, eta horietako gehienak obrakoak dira. Banaka batzuk harlanduzkoak dira, baita ukuiluko atea eta alboetako bao batzuk ere. Eraikuntzan erabiltako materiala harlangaitza izan zen. Azkenik, harrietako batean, 1887ko data agertzen da.

toponimia

Otsaita baserriaren eranskina izandakoa (**Ikus Otsaita**). Bigarren osagaiak aldiz ez du aparteko zailtasunik. Aldekoa Otsaita baserriaren aldean dagoen etxea adiera nahi du.

